



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
📠 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

2018KO URTARRILAREN 3KO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.
Batzarra: Premiazko bilera berezia.
Deialdia: Lehenengoa.
Eguna: 2018.01.03.
Ordua: Goizeko 13:00etan.
Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Mentxu Peña Lizarazu and.
Zinegotziak:
Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.
Ander Almandoz Indakoetxea jn.
Juan M. Gonzalez Burguete jn.
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.
Iñigo Sarrias Zoco jn., lanagatik.
Igor Ugalde Salazar jn.

Bertaratu ez direnak:

Inor ez.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

1.-2017-2019 ALDIRAKO Toki Inbertsioen Plana: bizitoki irainkorretara doazen eta biziguneen arteko bideak moldatzeko lanak.

Ikusirik aztergaiaren premia eta beharra, zinegotziak, aho batez, bilera egitea erabaki dute.

1.-2017-2019 ALDIRAKO TOKI INBERTSIOEN PLANA: BIZITOKI IRAUNKORRETARA DOAZEN ETA BIZIGUNEEN ARTEKO BIDEAK MOLDATZEKO LANAK.

18/2016 Foru Legearen bidez, abenduaren 13koa, 2017-2019 aldirako toki inbertsioen plana arautzen du.

Arantzako Udaleko Alkatearen 2017ko otsailaren 24ko 31. ebazpenaren bidez eskatu zen Bordalarrea, Haritz Ondo-Etxezarreta, Mainborda, Irullegi aldea, Aranoko erreka eta Albizko bideak moldatzeko prestatutako memoria baloratuaren arabera (Basartea S.L. enpresak egina) aipatutako planean sartu eta diruz laguntzeko.

Toki Administrazioiko zuzendari nagusiak uztailaren 5ean emandako 303/2017 Ebazpenaren bidez, onesten da 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Planean Toki

Programazioaren atalean sartutako behin-behineko zerrenda, zehazki “Bizitoki iraunkorretara doazen eta biziguneen arteko bideak” dagozkion inbertsioena.

Ondoren, Toki Administrazioiko zuzendari nagusiak irailaren 29an emandako 393/2017 Ebazpenaren bidez, onesten da 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Planean Toki Programazioaren atalean sartutako behin betiko zerrenda, zehazki “Bizitoki iraunkorretara doazen eta biziguneen arteko bideak” dagozkion inbertsioena.

Horrela Arantzako Udalak aurkeztutako memoria baloratua onesten da modu honetan:

- Bordalarreako bidea: 2019. urtean egiteko.
- Haritz Ondo-Etxezarreta bidea: 2018. urtean egiteko.
- Mainbordako bidea: 2018. urtean egiteko.
- Irullegi aldeko bidea: 2019. urtean egiteko.
- Aranoko erreka bidea 2018. urtean egiteko.
- Albizko bidea: 2018. urtean egiteko.

Proiektuaren aurrekontua hau da:

- Exekuzio materiala: 54.898,55 euro, BEZ barne.
- Ordainsariak: 3.441,29 euro, BEZ barne.

2018. urtean egiteko obren aurrekontua hau da:

- Exekuzio materiala: 38.761,46 euro, BEZ barne.
- Ordainsariak: 2.430,34 euro, BEZ barne.

Ikusirik obraren finantza plana:

- Obraren kostoa: 41.191,80 euro, BEZ barne.
- Toki Administrazio Departamentuko diru laguntza: 35.013,03 euro.
- Udaleko 2018ko aurrekontuaren errekurtsioekin (1-650-62700 partida): 6.178,77 euro.

Ikusirik aipatutako 393/2017 ebazpenaren 5. puntua,

Ikusirik 18/2016 Foru Legearen 15. artikulua,

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Arantzako “Bizitoki iraunkorretara doazen eta biziguneen arteko bideak” dagozkion inbertsioaren proiektua onartzea.

2) Arantzako “Bizitoki iraunkorretara doazen eta biziguneen arteko bideak” dagozkion inbertsioaren proiektuaren finantza plana onartzea.

3) Akordio hau Nafarroako Gobernuko Toki Administrazio Departamentura bidaltzea, proiektuarekin batera, jarduketak Toki Inbertsioen Planean sartzeko eta gehieneko diru-ekarpena finkatzeko eskatuz.

Bertzerik gabe, arratsaldeko 18:30ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,
Mentxu Peña Lizarazu and.

